

# HEZI-REN 2. ASANBLADA

Data: 2015/07/08

Bildutakoak: Oier, Irati, Mireia, Nekane, Amaia L., Idoia, Beti, Josu, Larraitz

## Saioaren nondik norakoak

1. Asanbladako akta [www.herri-ola.eus](http://www.herri-ola.eus) web orrialdean eskegita dago. Horrela, hemendik aurrera akta zein dokumentazio ezberdina bertan izango dugu eskuragarri. Bestalde, Herri-Olako bilera bi izan dira eta Heziren ordezkaritza ere bertan izan dela komentatu da. Hala ere, deialdi irekia da eta edonor gonbidatuta dago
2. Aurreko asanbladan bildutako informazio guztia ordenatu eta lehentasunak adoste aldera, talde iraunkorrak proposamen zehatza aurkeztu du. Bertan 3 lan-ildo nagusi proposatzen dira eta horrez gain, horren inguruko formakuntzari ere garrantzia emango zaio:

### ✓ ELKARBIZITZA

Aurrekoan komentatu bezala, Eskolak Berritzegunetik bideratuta eta Eusko Jaurlaritzaren bidez, Baketik izeneko elkarte batekin proiektua aurrera eramateko aukera du. Horrela, elkarbizitzari ikuspegi global batetik, herri ikuspegi batetik heltzeko aukera interesgarria dela eta, irailetik aurrera lehentasunetako bat izan behar dela adostu da.


### ✓ CURRICULUM LOKALA

Hik Hasi-rekin harremanetan jarri gara eta momentu honetan berau garatzeko zerbitzurik eskaintzen ez badute ere, Orion gauzatzen ari direla eta, bertako koordinatzailearekin harremanetan jartzeko proposatu dute. Gutxienez 2 urteko luzapena izango duen proiektu bat da. Irailean Orioko koordinatzailearekin bildu eta jarraitu beharreko pausuak adostuko dira.

### ✓ AISIALDIA

Oso eremu zabala dela eta, herrian dugun aisialdi eskaintzaren inguruko mapa bat aurkeztu da:

# Aisialdia Otxandion



- ESPAZIOAK:**
- Andresalanda
  - Kultur etxea
  - Mainondo
  - Ludoteka
  - Gaztetxea
  - Jubilauek

- ELKARTE ERAGILE:**
- Miru gain
  - Vulkano
  - Dantza
  - Ludoteka
  - Guraso elkarte
  - Musika eskola
  - Triki Pandero
  - Gitarra
  - Multi
  - Ingelera
  - Gazte Asanblada

Denon artean taula aztertu eta osatu genuen. Berau aztertuta, proposamen ezberdinak egon ziren:

- Dagoena antolatu eta koordinatzeko ahalegina egitea.
- 12-16 urte artekoentzako eskaintzarik ezaren aurrean aukerak sortzea.

Hala ere, informazio guzti hori haur eta gaztetxoekin kontrastatu, galdetu eta beraien iritzia kontutan hartuz gauzatu behar dela kontutan hartuta, momentuan ez dugu erabakirik hartu.

12 urte arteko hurrekin jada asanbladak egin dira eta beraien identifikatutako behar eta interesak kontutan hartuko dira. Baina 12-16 urte arteko gaztetxoekin irailean batuko gara. Gaztetxo hauek guztiak biltzea zaila iruditzen zaigun arren, ahalegin berezia egingo dugu, beraien iritzia ezinbestekoa baita.

Beraiekin hitz egin ondoren erabakiko da urtean zehar lehentasuna zeri eman.

### ✓ FORMAKUNTZA

Aukera ezberdinak proposatu dira. Oin-herri aditu eta aritu asko ezagutzen dituzte eta proposamen zehatzak ekarri zituen.

Hasteko, HERRI HEZITZAILEAREN inguruko formakuntza orokor bat eskaintzeari garrantzia berezia ematen diogu. Eta ondoren, hautatutako gaien araberako formakuntzak eskainiko dira